

EUSKAL HERRIAK




GASTEIZ

■ **'A' ereduaren alde** Luis Elejalde ikastetxe publikoko guraso talde bat. Guraso talde batek idatzi bat bidali dio Arartekoari, Luis Elejalde Ikastetxean 'A' ereduaren irakas-kuntzak jarrai dezala eskatuz. Matrikula epea ixtear dago, eta guraso taldearen iritziz, «eredu hau desagertu egingo zela zabaldu zen, hori dela eta oso haur gutxi inskribituko dira 'A' ereduari». Guraso taldeak salatu egin du, interesatuei inolako informaziorik eman gabe eredu desagertu nahi izatea, «datozen urteotan gertatuko denaz ez digute ezertxo ere esan». Horren berri duela gutxi jakin dutelako ere haserre daude, eta Eskola Kontseiluak horren berri lehenagotik ere bazekiela esan zuten. Eneko Oregi Hezkuntza Saileko delegatuarekin elkarrizketatu ziren atzo, 'A' ereduaren ez desagertzeko eskatuz. Guraso hauek, beren seme-alabak gazteleraz irakastea nahi dute, eta euskara ikasgai bat litzake soilik.

LAUDIO

■ **Eraikuntzen kanpokaldea eta hormak garbitu eta txukuntzeko** agindua eman du alkateak. Atzo jarri zen martxan herriko eraikuntzen kanpokaldea eta hormak garbitu eta txukun uzteko kanpaina. Antonio Aiz alkate berriak eman zuen agindua eta garbiketa lanetan laguntzeko deia egin zieten herritar guztiei. Pintor Arrue kalean, N-625 eta Nerbioi ibaiaren artean dagoen zonaldearen garbiketa lanek ere ekin zaie Udalaren aginduz.



BAIGORRI

■ **Basaizea kultur elkarteak urteko biltzar nagusia** egin zuen joan zen astean, bere kultur ekitaldien bilduma bat egiteko. Lehen oharpena izan da, Nafarroaren Egunak gero eta jende gehiago biltzen duela orain. Karia horretarat antolatzaileek gogoetak egin dituzte eta pentsatzen dute heldu den urteari begira antolakuntza eta animazioan berrikuntzak ekartzea. Geroari begira, talde berri baten montatzea erabaki dute. Honen helburua izan da Baigorri herrian kultur ekitaldien antolatzea, zeren orain arte Basaizea taldearen lana kultur astearen antolaketa mugatzen bait zen. Dagoeneko antolatzaileak lanean hasiak dira; alabainan uda honetan iraganen diren herriko festetan eginen diren toberetan hartuko bait dute parte.

DONAPALEU

■ **SPAVIA okela puskatzeko fabrikako langileen alde sostengu gaua** antolatu du CFDT sindikatuak bihar arratseko 6etan, osteguna, abere hiltegiko aparkalekuan, Aiziritzeko bidean. Jada zenbait hilabete egiten du bertako langileek arazo larriak dituztela zuzendaritzarekin. Honek ez ditu lehenagotik lantegian sartzen uzten eta beraz, langileak lanik gabe daude eta lanaren galtzeko arriskuan. Sostengu gaua abiatuko da talo eta xingar jate batekin; ondotik arratseko 9etan abestuko dute Jojo Bordagarai eta Ramuntxo Carrere, Ramuntxo Farigel eta Bernadette Castillon, Etxamendi eta Larralde, Guk, Beñat Axiari, Irigoien anaiak, Elkor taldea eta Didier Altzugarat. Hitzaldi bere ere eginen dute langileek beren egoeraren berri emateko.



ZESTOA

■ **'Pamir 91 Zestoa' espedizioaren gorabeherak entzun ahal izango dira** gaur izango den mahainguruan. Ertxinapeko Kukurrua Eskola Irratiak bere lehen ikasturte amaierarako emanaldi be-

rezia antolatu du, 'Pamir 91 Zestoa' espedizioa kideekin egingo den solasaldia izango da hain zuzen emnaldi berezia. Zuzenean hitz egingo dute espedizioa kideek Ertxinapeko Kukurruatik. Uztailearen 5ean ekingo diote Pamirrerako espedizioari, eta espedizioaren xehetasunen berri herriari emango diote. Entzuleek galderak egin eta beren kezkal azaldu ahal izango dituzte gainera. Gaur izango da mahaingurua iluntzeko zortzi t'erdietan, eta irratia erregulartza FM 107.8 da. Era berean, Ertxinapeko Irratiak esker onak ematen dizkio herri osoari, eta datorren ikasturtean ere orain arte egindakoari eutsiz, irratia emanaldiarekin jarraituko dutela jakin erazi dute Ertxinapeko Kukurrua Eskola Irratiko kideek.

BEASAIN

■ **Filme ugari ikusteko aukera Udaldiko Zinemaldiaren barne.** Udaleko Kultur batzordeak antolatuta, eta Gipuzkoako Diputazioaren laguntzarekin, Udaldiko Zinemaldiari hasiera emango zaio ekainak 28, datorren ostiralean. 'Laguna duenak altxorra du' filmaren emanaldia izango da gaueko hamaiketean, Igartzako parkean. Sergio Corbuccik zuzendua, aktoreak Bud Spencer, Terence Hill eta John Fucjoka dira. Hurrengo emanaldia uztailearen 12an izango da Murumendi

Ikastetxean, gaueko hamaiketean. Filmea 'Nolako zura halako ezpala' izango da. 'Bi zirkuitu eten' irailaren 13an ikus ahal izango da, Dolareako parkean gaueko hamaiketatik aurrera. Azken emanaldia, irailaren 27an izango da. 'Konta ezazu nirekin' da azken filmea, eta hau ere Murumendi ikastetxean izango da gaueko hamaiketean. Beasaingo Udalak antolatu du Udaldiko Zinemagintza, eta babeslea Gipuzkoako Diputazioa da.



ITURRIOTZ

■ **Arrain-haztegi bat jarriko du Diputazioak.** Aguanaz auzoko eraikuntz batean kokatuko du Bizkaiko Diputazioak amuarrain txikien haztegia. Udalak arrain-haztegia ezartzeko lokala utzi eta Bizkaiko Diputazioa arduratuko da bere mantenuaz eta arrain txikiak hezteaz. Udala eta Diputazioak sinatutako akordioaren arabera, hamar urteko iraupena izango du amuarrain-haztegiak. Hamar urte igaro ondoren, ordea, epe hori luzatzeko aukera izango da beste akordio bati esker. Haseran braz, hamar urtetako bada arain-haztegia, urte gehiagorako ere berritu daiteke gerora. Hemen haziko diren amuarrain txikie-

kin, Bizkaiko erreka eta ibaiak arrain mota honetaz beteko dira, nahiko arrain gutxi bait dute egun erreka eta ibaiek.

BOLIBAR

■ **Herri independente bihurtzeko daiteke urtebete barru.** Markinako auzoa da egun, baina herri aske bihurtzeko aurrerapausuak eman dira. Joan zen apirilean, sinadura bilketa egin zen desanexioa bultzatzeko eta botoa emateko eskubidea duten 400 pertsonetatik 300ek sinatu zuten independentziaren alde. Bizkaiko Diputazioak egin behar du orain txostena eta independentzia lortzeko ekarriko lituzken eraginak aztertu beharko ditu. Ondoren erreferenduma egingo da. Independentzia lortzeko bolibartarrek arrazoi historiko eta ekonomikoak argudiatzen dituzte. Arlo ekonomikoari dagokionean, orain erabiltzen dutena baino diru kopuru handiagoa erabiltzeko aukera izango dutela diote. Lege aldetik independentzia lortzeko arazorik ez dago.

KARRANTZA

■ **Lubizi arriskua dago** bailarako Udalaren ekimenez egindako azterketaren arabera. 13.600 hektareako lurralde honek, lur gehienak maldan ditu. Arazoa zera da, maldan lur ugari dagoela, lurra arearrizkoa dela batipat eta honetaz gain zuhaitz asko ateratzen dela. Bailara honetan abeltzaintza oso garrantzitsua da gainera. Ondorioz, erosio arazo larria du bailarako lurra eta lubizi arrisku handia dago. Abeltzain eta basozaleen arteko tirabirak zirela eta bultzatu zuen Udalak bailarako lurren azterketa. Azterketaren emaitza kontutan izanik, lurra zeregin batzuetarako banatu beharko dira, baldin eta erosioa geldiarazi nahi bada.

MUNGIA

■ **Mungia Euskaldunduz Taldea bihar aurkeztuko da.** Aurkezpenerako ekitaldi zabala antolatu dute. Bertan Euskal Herriko beste lekuetako taldeetako kideak izango dira, hala nola, Arrasate Euskaldundu Dezagun (AED) eta Urduizko Euskara Taldea. Bihar arratsaldeko zazpi t'erdietan, Mungia Euskaldunduz Taldearen zuzendaria hitzaldi bat eskainiko du taldearen helburuak eta asmoak zeintzu diren jendaurrean azaltzeko. Mungia Euskaldunduz Taldearen asmoa da aurkezpen egunean, euskara hutszeko aldizkari berria kaleratzea gero hamabostean behin argitaratzen segitzeko. Mungialdeko herrietan izandako jazoeren berri ematea da xedea. Biharko herri afaria ere antolatu dute. Nahi duen guztiak parte hartu ahal izango du afarian.

ZIRAUKI



■ **ZUBI erromatarra konponduko** dute. 24.204.175 pezetako aurrekontuarekin zubi erromatarra konpontzea onartu du Roman Felones Hezkuntza, Kultura eta Kirol kontseilariak. 1988. urtean lur mugitze bat izan zen zubiaren alboan,

ondoan dagoen lantegiaren egoera kaskartuz. Zubi eta bide erromatarrek balore historiko-artistikoa du. Ziraukitik Lizarrara doan bidean dago, baita Santiagorako bidearen barruan ere. Zubiaren zabalera bi metro t'erdikoa da.